

BATXILERGOA MUSEOA BIZI

“Hura ikusi, hauxe bizi, hauxe pentsatu”

A. OINARRIZKO ZEHAR-KONPETENTZIAK.

Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.

Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea, eta ikasitakoa mobilizatzea eta beste testuinguru eta egoera batzuetara eramatea, norberaren ikaskuntza modu autonomoan antolatzeko.

Honako osagai hauek ditu ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentziak:

1. Informazioa bilatzea, aukeratzea, gordetzea eta berreskuratzea hainbat informazio-iturritatik (informazio-iturri inprimatu, ahozko, ikus-entzunezko, digital eta bestelakoetatik), eta iturri horien egokitasuna ebaluatzea.
2. Informazioa ulertzea eta buruz ikastea (pentsamendu analitikoa).
3. Informazioa interpretatzea eta ebaluatzea (pentsamendu kritikoa).
4. Ideiak sortzea eta hautatzea (pentsamendu sortzailea).
5. Baliabide kognitiboen erabilera estrategikoa egitea, ikasitakoa baliatuz eta beste egoera batzuetara transferituz.

B. DISZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK.

DISZIPLINA BARRUKO OINARRIZKO KONPETENTZIAK	BATXILERGOKO IKASGAIK
A. Konpetentzia sozial eta zibikoa	A.1. Mundu Garaikidearen Historia 1 A.2. Espainiako Historia 2
B. Arterako konpetentzia	B.1. Artearen Oinarriak I eta II B.2. Artearen Historia 2

A. Konpetentzia sozial eta zibikoa.

Nork bere burua, bere taldea eta bere mundua ulertzea eta, horretarako, gizarte-zientzien ezaupideak eskuratzea, kritikoki interpretatzea eta erabiltzea eta haien berezko prozedura eta metodologiak baliatzea, bizitzako ohiko egoeretan modu autonomoan jarduteko, herritar gisa dagokigun arduraz, eta, hartara, gizarte guztiz demokratiko, solidario, inklusibo eta askotarikoa garatzen laguntzeko.

B. Arterako konpetentzia.

Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta kritikoki baloratzea, garai eta erabilera anitzetakoak, faktore estetikoek pertsonen eta gizartearen bizitzan duten garrantziaz ohartzeko. Artearen hizkuntzak ezagutzea eta haien kodeak erabiltzea mezu artistikoak sortzeko eta haien bidez adierazteko eta komunikatzeko, ekimena, irudimena eta sormena erabiliz.

C. SAN TELMO MUSEOAK BATXILERGOKO IKASLEEI ESKAINTZEN DIE...

Denbora lerroa

NORENTZAT: Batxilergoko ikasleak

HELBURUAK:

Batx1: Mundu Garaikidearen Historia 1 ikasgaiko helburuak:

- 1) Mundu garaikidearen historiako gertakari eta gertaera garrantzitsuak aztertu, azaldu eta denboran eta espazioan behar bezala kokatzea, prozesu historikoan duten esanahia eta gaur egun dituzten ondorioak balioesteko.
- 2) Historia hurbila osatzen duten prozesu ekonomiko, demografiko, sozial, politiko eta kultural nagusiak ulertzea eta, horretarako, haiei lotutako faktore desberdinak aztertzea, ezaugarriak esanguratsuenak identifikatzeko.
- 3) Datu historikoak biltzea eta, horretarako, denboran orientatzeko kategoriak (iragana, oraina eta etorkizuna), denbora-posizio erlatiboak (segida, aldiberekotasuna, diakronia, sinkronia), iraupenak (faktikoa, koitunturala, egiturazkoa, iraupen laburreko, ertaineko edo luzeko fenomenoak eta denbora-neurriak (denbora-unitateak, denbora eta kronologia historikoa) erabiltzea, gizartearen bilakaera historikoa ordenatu eta sintetizatzea.
- 4) Fenomeno historikoak zuzentzen dituzten prozesu eta mekanismoak aztertzea, eta egungo gizartearen bilakaeraren arrazoi ugariak ulertzea, historiaren ikuspegi orokor, arrazoitu eta kritiko bat izateko.

Batx2: Espainiako Historia 2 ikasgaiko helburuak:

- 1) Espainiako eta Euskadiko historiako gertakari, prozesu eta protagonistarik garrantzitsuenak identifikatu, aztertu eta azaltzea, eta denboran eta espazioan kokatzea, bi errealitate historiko horien egungo konfigurazioan izan duten eraginaz jabetzeko.
- 2) Euskadiko eta Espainiako historia garaikideko gertakari eta prozesu historikorik garrantzitsuenak ezagutzea eta gertakari politiko, ekonomiko, sozial eta kulturalen arteko loturak identifikatzea, guztiak beren konplexutasun osoan ulertzeko.
- 3) Ikasgaiaren berezko edukiak ahoz zein idatziz behar bezala adierazi eta komunikatzea eta hainbat hizkuntza eta euskarritan adierazita dauden datu eta informazio historikoak hautatu eta interpretatzea, aztertutako prozesu historikoak behar bezala ulertzeko.
- 4) Fenomeno historikoak zuzentzen dituzten prozesu eta mekanismoak aztertzea, eta egungo gizartearen bilakaeraren arrazoi ugariak ulertzea, historiaren ikuspegi orokor, arrazoitu eta kritiko bat izateko.

EDUKI MULTZOA:

Batx1: Mundu Garaikidearen Historia 1 ikasgaiko edukiak:

1. multzoa. Antzinako Erregimena
2. multzoa. Industria-iraultzak eta haien gizarte-ondorioak
3. multzoa. Antzinako Erregimenaren krisia
4. multzoa. Europaren nagusitasuna munduan, eta I. Mundu Gerra
5. multzoa. Gerra arteko garaia, II. Mundu Gerra eta horren ondorioak
6. multzoa. Mundu kapitalista XX. mendearen bigarren erdialdean

Batx2: Espainiako Historia 2 ikasgaiko edukiak:

1. multzoa. Erdi Aroko gizarteak
2. multzoa. Monarkia hispanikoaren sorrera eta hedapena munduan zehar (1474-1700)
3. multzoa. Lehen borbondarren erreformismoa (1700-1788)
4. multzoa. Antzinako Erregimenaren krisia (1788-1833): liberalismoa eta absolutismoa aurrez aurre
5. multzoa. Estatu liberalaren eraikuntza gatazkatsua Euskadin eta Espainian (1833-1874)
6. multzoa. Errestaurazio borbondarra: sistema politiko berri baten ezarpena eta finkapena (1874-1902)
7. multzoa. Iraunkortasun eta eraldaketa ekonomikoak XIX. mendean: garapen urria
8. multzoa. Errestaurazioaren sistemaren krisia eta monarkiaren erortzea (1902-1931)
9. multzoa. Bigarren Errepublikak eta Gerra Zibila nazioarteko krisi-testuinguru batean (1931-1939)
10. multzoa. Espainia Europatik kanpo: diktadura frankista (1939-1975)
11. multzoa. Trantsizioa eta demokrazia Euskadin eta Espainian 1975. urteaz geroztik

IRAUPENA: 2 orduko jarduera da.

AZALPENA:

Jarduera honetako museoko bisitaren atalean, XIX. eta XX. mendeetan euskal gizartean gertatutako aldaketa nagusiak aztertuko ditugu. Garai horretan, gaur egungo gizartearen osaera ulertzeko gako nagusiak aurkituko ditugu. Tailer gelan, ikasleei denbora eta espazioa batzen dituen lerro batean, hainbat gertaera historikoak kokatzeko eskaera egingo diegu. Honela, modu grafiko batean, momentu berean baina leku desberdinetan gertatutakoa ikusi ahal izango dute.

Historiaren artea

NORENTZAT: Batxilergoko ikasleak

HELBURUAK:

Batx1-2: Artearen oinarriak I eta II ikasgaiko helburuak:

- 1) Historian zehar arteari buruzko ikuskeretan izandako aldaketak eta artearen funtzio sozialek izandako bilakaera ulertzea eta balioestea, eta horretan, aintzat hartzea arte-adierazpenak ugariak eta askotarikoak direla, historiaren joanean arteak zer garrantzi izan duen ulertzeko.
- 2) Artelanak beren osotasunean ulertzea, giza sormenaren ondorio diren aldetik, eta horretan, beren horretan gozamen-iturri eta garai nahiz kultura jakin bateko lekuko direla onartzea, eta kulturen iragana eta oraina ulertzeko aukera ematen dutela aintzat hartzea.
- 3) Arte-ondarea ezagutzea, balioestea eta hartaz gozatzea, ondare hori gure kultura-identitatearen erakusle den aldetik, eta hala, norbera komunitate bateko parte dela ohartzea, belaunaldiz belaunaldi transmititutako ondarea errespetatzearen garrantziaz jabetzeko.
- 4) Ezagutzan oinarritutako sentsibilitate artistikoa eta espiritu kritikoa lantzea, eta horretan, artelanei begiratzeko modu ugariak eta pertzepzio-aniztasuna errespetatzea, estereotipo eta aurreiritzi estetikoak gaindituz, artelanei buruzko sentimendu eta ideia propioak adierazteko.

Batx2: Artearen Historia ikasgaiko helburuak:

- 1) Artelanek bi alderdi nagusi dauzkatala ulertzea: batetik, alderdi historiko-kulturala; eta, bestetik, alderdi estetiko-formala; eta horretan, jakitea iruzkin eta irakurketa espezifikoen bitartez bere horretan goza ditzakegula artelanak, eta garai eta kultura baten erakusle gisa balioetsi.
- 2) Artea aldaera historiko eta sistema bisual ugariak hizkuntza bat dela ulertzea, eta aintzat hartzea horrek artearen historiako garai bakoitza modu adierazgarrian interpretatzeko aukera ematen duela, artearen eta gizartearen artean zer-nolako harremanak dauden eta arteak zer-nolako eragina duen azaltzen jakiteko.
- 3) Sentsibilitate estetikoak, gozamen estetikorako gaitasuna eta espiritu kritikoa lantzea, artelanei buruz nork bere sentimendu eta ideien berri ematen ikasteko, eta horretan, artelanei begiratzeko modu ugariak eta pertzepzio-aniztasuna errespetatzea, estereotipo eta aurreiritzi estetikoak gaindituz, eta ohartzea zeinen garrantzitsua den artea, gaur egungo sormen-askatasunak oinarri duen hizkuntza artistikoaren berritasun erabatekoaren adibide den aldetik.
- 4) Museo, erakusketa eta monumentu interesgarri eta adierazgarrietako artelanak aurkitzea, ezagutzea, aztertzea eta haietaz gozatzea, eta, ahal dela, bertara joatea, estilo jakin baten ezaugarriak bereizteko eta garai berean landutako korrante estetiko ugarien aniztasuna balioesteko.

EDUKI MULTZOA:

Batx1-2: Artearen oinarriak I eta II ikasgaiko edukiak:

- 1. eta 2. mailak: Artearen bilakaera historikoa eta aniztasuna

Batx2: Artearen Historia ikasgaiko edukiak:

- 1. gai multzoa. Arte, giza adierazpena denboran eta espazioan
- 2. gai multzoa. Arte-estiloak: bilakaera historikoa eta espazio-aniztasuna

IRAUPENA: 2 orduko jarduera da.

AZALPENA:

Arte Ederretako bildumako bisita gidatua XV. mendetik XIX. mendera bitarteko ibilbide kronologikoa egiten da. Hartara, artearen historian funtsezko garrantzia izan zuten egileak ikusiko ditugu (Greco, Tintoretto, Ribera, Rubens, Beruete, Fortuny, Madrazo edo Miró) baina estilo artistikoek historian zehar izan duten bilakaera ezagutzeko aukera ere izanik. Eta tailer moduan, collage teknika erabiliz ikasleek artearen garai desberdinak irudikatuko dituzte.

D. ETA IBILBIDE TEMATIKO MODUAN...

- **Bertakoa eta unibertsala**
Gainbegiratua mundu garaikideari, erakustareto iraunkorretan barrena. Museoaren ardatzak dira jorratu beharreko gaiak: iraganera begira, etorkizunari heltzeko erronkak azaltzea da asmoa.
- **Zatoz zugana**
San Telmo Museoa ezagutzeko ibilbide orokorra. Gaur egungo ikuspegi berritik begiratutako objektu historikoak gure iragana eta gure oraina ulertzeko gako batzuk eskainiko ditugu.
- **Artea agerian**
Teknologia berrien bitartez museoko hainbat artelanen gakoak topatuko ditugu. Gaur egungo teknologiek artea eta historia ezagutzeko aukera zabala eskeintzen dute.
- **San Telmoko arkitekturak**
San Telmo Museoa izan duen azkeneko anpliaziotik eratorritako ibilbide honetan eraikinari erreparatzen zaio batez ere.